

BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresan jendeak etxean gordeta edo erabili ez nahi dituzten kamiseta baita alkandora zaharrei bigarren aukera bat ematea datza. Horrez gain, altzairu zaharrak edo erabiltzen ez direnak jaso eta eraldatzea eta berritzea izango da gure lana. Enpresa honetan hiru pertsonen parte hartuko dugu eta hiruen artean egingo degu lan guztia. Eskuz egingo degu lan eta klase edo ikastaro batzuen bitartez jendeari gauza gehiago ikasten edo burua lanetik argitzeko aukera emango diegu. Gainera, gaur egun munduan kontaminazio asko dagoenez ingurumenari lagundu nahi diogu, horretarako ozeanoetan aurkitzen den plastikoa erabiliko dugu kamisetak egiteko. Horrez gain, kamiseta bakoitzak nahi duen logotipoa izango du, pertsona bakoitzaren gustura pertsonalizatu ahal izango baitira.

Enpresa guztiek bezala hainbat lehiakide izan ditzake gure enpresak. Horietako bat, "Asociacion traperos de Emaus" izan daiteke. Bestetik, "Caritas" urtero arropa asko jasotzen dutelako, lehiakide indartsu bat izan daiteke guretzat. Generalean "AERESS" enpresak izan daitezke guretzat lehiakide. Horregaitik, oso garrantzitsua da beste enpresekiko guk ditugun indarguneak azpimarratzea, baita beraiekiko ditugun ahultasunak zeintzuk diren jakitea, hobetu ahal izateko.

Gure enpresaren indargune nagusia, ikastaroak eskaintzekoa izango da. Izan ere, modu honetan bezeroek beraien gustuko gauzak egitea eta diseinatzea ahalbidetuko dugu. Beraien burua lanetik ahalduz eta bura libre utziz eta gauza gehiago egiten ikastea. Beste bat, bertziklatzearena izango da. Guk erabiliko ditugun materialak bigarren eskukoak izango direnez, klimaren arazotik urruti mantenduko gara dena eskuz egingo ditugulako. Beste enpresekikoa ahultasunak, besteak beste nagusiena beste enpresa edo elkarteak gurea baino handiagoak direla. Handiagoak izatean gu baino indar gehiago edukiko dute, esperientzia gehiago baita bezero gehiago.

Beste enpresa batzuen aldean, prezioan ezberdintzen gara. Enpresa honetako produktuen prezioa merkeagoa izango da, izan ere, zahartuta dauden materialei beste bigarren erabilera bat ematen baitiegu. Gainera, produktuen estiloa kontsumitzailearen arabera da, beraiek pertsonalizatzen baitituzte ikastaroetan. Bigarren erabilera horri esker, ingurumenari lagunduko diogu kutsadurarekin.

